



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

ALDUNDIAK JARDUERA EKONOMIKOA BULTZATZEKO 2 MILIOI EUROKO LAGUNTZAK IRAGARRI DITU BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEN OSOKO BILKURAN

- **Ainara Basurko Ekonomia Sustapeneko diputatuak urtebeteko gabealdia iragarri ditu Elkargiren eta Seed Capitalen maileguak ordaintzeko, baita merkataritzako bonu barriak eta lurraldea hornitzeko kateak erakarteko proiektu bat be.**

(Gernikan, 2022ko apirilaren 27an). Bizkaiko Foru Aldundiak igazko diruzaintzako soberakinetatik urtengo daben neurri ekonomiko barriak iragarri ditu gaur Gernikako Batzar Etxean egindako kontroleko saioan. Ekonomia Sustapeneko Sailak “2 milioi euro” erabiliko ditu lau ekimen martxan jarteko: merkataritzarako bonuen kanpaina (milioi bat), hornikuntza- eta ekoizpen-kateak lurraldera ekartea aztertzeke programa barria (800.000 euro), Elkargigaz lankidetzaz-hitzarmen barria enpresentzako maileguen gabealdia luzatzeko gastuak estaltzeko eta Seed Capital Bizkaia Aurrera mikro kredituen gabealdia luzatzea.

Neurri barriak Talde Berezia-PP Bizkaia Aurrera itaun batean iragarri dira. Itaun horretan Covid-19ak, Ukrainako gerrak eta inflazioak sortutako krisia Bizkaiko ekonomian sortzen ari dan efektu “hilgarria” arintzeko neurriak eskatu dira. Esther Martínez batzarkideak salatu dauenez, Aldundiak ez deutse “jaramonik egiten” Bizkaiko ekonomiari buruzko alertei, izan be BPGari, enpresak lurraldera heltzeari, biztanleria galtzeari eta industriako enpleoaren murrizketari buruzko beheranzko adierazleak dagoz. Datu horreek gero eta txarragoak ari dira izaten aspalditik, eta, haren eretziz, arazo ekonomikoak “ez dira kointuralak, egiturazkoak baino”. Popularrentzat, beharrezkoa da “espíritu erreformista” aktibetea, Bizkaia Aurrera desaktibazio ekonomiko iraultzeko neurriak ezarrita, bai eta “aukerak handitzea eta talentuaren arretarako ez ezik, talentu-sortzaileentzako polo izatea be”.

“Ez dago jarrera apatikorik. Arduratuta eta lanpetuta gagoz pandemia eta gerra baten ondorioei aurre egiteko baldintzarik onenak sortzeko”, erantzun dau Ainara Basurkok, eta orain dala hilebete batzuk Aldundiak ezarritako neurriak printzipio bitan oinarritzen dirala azaldu dau: enpresen egoerearen azterketa “errealista” eta “erakundeen arteko koordinazioan”, neurriak “eraginkorrak” izan daitezkan.

Basurkok azken hilebeteetan administrazioek martxan jarri dituen neurrien errebasoa egin dau. Besteak beste, apirilaren 12an Aldundiak iragarritako 270 milioiak, diruzaintzako gerakinetatik ateratakoak, proiektu estrategikoak gauzatzeko erabiliko



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

dira (metroa Galdakaora luzatzea, Leioako Avanzada estaltzea, bide berdeak eta foru-egoitzak edo harrera-etxeak eregitea gizarte-bazterketa saihesteko). Modu berean, bere sailaren lanari balioa emon deitso; izan be, aurrekontuaren “% 80” enpresa-sarerako proiektu “estrategikoen” palanka moduan erabilten dau, ez epe laburrerako bakarrik, baita “epe luzera begira” be.

Ahozko erantzun-eske batean, Talde Berezia-PP Bizkaia taldeak zergak bajetako eskatu deitso Aldundiari, “egiturazko” arazo horreei aurre egiteko, baina Ahaldun Nagusiak berak ukatu egin dau hori. Unai Rementeriak “zuhurtziaz jokatu behar dala azpimarratu dau, eta gehiago oraindino holango ziurbakotasun ekonomiko egoeran”. Lehenengo hiruhilekoko datuek ez dabe esaten lurraldea PPK marraztutako egiturazko krisi-egoeran dagoanik: BPGren hazkundera % 5etik gorakoa da edo langabezia digitu biren azpira bajau da. Rementeriak esan dauenez, presaka jokatu ezker “huts egin daiteke” eta Esther Martinez kritikau dau bere taldeak zergak bajatzea proponidu dauelako, eta aldi berean inbertsino publikoko gastua handitzea. Ganera, Alberto Núñez Feijóo liderrak eskatzen dauen gauza bera hemen planteetan ete dan argitzeko eskatu dau. Izan be, horren artean ez dago “PFEZaren tarifa deflaktetea”, Martinezek iradoki dauen moduan.

KALIDADEKO ENPLEOA

Batzarkideak euren jarlekuetan egozala egin dan osoko bilkuraren gai-zerrendako beste puntu batean, Elkarrekin Bizkaia Israel Escalante Mesónek, 2017an onartu zan Araudia betez gizarte- eta ingurumen-klausulak beteten diran ala ez Aldundiak zelan kontrolatan dauen galdetu deitso Elixabete Etxanobe Landajueta Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako diputatuari. Alderdi moreko batzarkideak sektore publikoan “azpi-kontratazinoa orokorra izatean” jarri dau arretean, hori ez datorrelako bat Aldundiaren “lehentasunezko” ardatzetako bategaz, hau da, kalidadeko enpleo sortzea, Escalanteren berbetan.

Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, kontrol-mekanismo “nagusia” kontratuen administrazio-klausulen agiria da, alderdiek derrigorrez bete beharrekoa, eta bertan ezarten dira beharginen lan-baldintzak eta -eskubideak, bai eta bardintasunari, desgaitasunari, hitzarmenak beteteari edo, beharrezkoa izan ezker, beharginak subrogatzeko betebeharrari buruzko kontuak be. Eta Aldundiak kontrol “bikotxa” ezarten dauela ohartarazo dau, kontratua sustatu dauen foru sailaren eta Foru Gobernuaren Kontratazino Zerbitzuaren bitartez.

Enpleo baldintza duinak beteteari jagokonez, Aldundiak eskura dituan tresna biren bitartez “beteten dau” konpromiso hori: Enpleo publikoa eta kontratazino publikoa. Legegintzaldi honetan, Aldundiak, “3.332 klausula sozial ezarri ditu 355 kontratutan”,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

hau da, “12 klausula kontratu bakotxeko”. 2021ean bakarrik, Foru Gobernuak 11 Esparru Akordio sinatu ebazan.

TASA EFEKTIBOA SOZIEDADEETAN

Beste itaun batean, Arantza Urkaregi EH Bilduko batzarkideak Soziedadeen ganeko Zergan gitxieneko tasa efektiboa zelan ezarri eta bermatuko dan galdetu deutso Aldundiari, Ekonomiaren Lankidetzarako eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) urrian 136 herrialdek 2023tik aurrera 750 milioi euro baino gehiago fakturretan dituen enpresei Soziedadeen ganeko Zergan % 15eko gitxieneko tasea ezarteko konpromisoa lortu ostean. Urkaregik Amazonen adibidea jarri dau: iaz 51.300 milioi euro fakturau ebazan European, eta ez eban euro bakar bat be ordaindu zergetan.

Bizkaiko gitxieneko tasa altuagoa da (% 17), baina Urkaregiren berbetan “ez da beteten”. 2019ko ekitaldian Soziedadeen ganeko Zergan aurkeztutako “ia 35.000 aitorpenetatik”, 4.254 aitorpenen tasa efektiboa % 15etik beherakoa izan zan. Datu horretan, “kenkariak baino errazoi gehiago dagoz”, Urkaregiren eretxiz. Urkaregik “enpresen diru-sarreraren arabera gitxieneko tasa bat eskatu dau”, eta ez kuota likido zergagarriaren arabera.

José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako diputatuak “oso positibotzat” jo dau ELGAN lortutako akordioa, “politikoa eta juridikoki loteslea ez dana”. Bizkaiko Ogasuneko arduradunaren eretxiz, EBren barruan modu “koordinatuan” egokitu behar da “disimetriak saihesteko”, baina “ez gagoz planteamentu arauemoile bat egiteko unean”, “ez daukagulako behar besteko zehaztapenik”, hori urte honetarako aurreikusita egoan arren. Batzordeko kide diren herrialde guztiek aurretik aho batez onartu beharko leukie azken proposamena. Kenkariei jagokenez, Iruarrizagak adierazo dauenez, 2013ko zerga-berrikuspenaren ostean, epe ertainera egindako inbertsino “estrategikoak” baino ez dira geratu.

ERREKALDEKO SAIHESBIDEA ETA SARRATUKO GELTOKI INTERMODALA

Bilboko HAPO onartu ostean, Aldundiak Errekaldeko saihesbidea eregiteko proiektua idazten hasteko emongo dituan pausuez galdetu dau EH Bilduk. Imanol Pradales Azpiegituretako foru diputatuak ez dau mugarri barririk aurreratu Bizkaiko parlamentuan jakinarazo eban plan “posibilistaren” barruan. “Ahal dan neurrian egingo da aurrera”, esan dau. Raul Mendezek, barriz, “lehentasunezkoa” izan daitela eskatu dau, aurreikusitako plana kontuan izanda, “ia 8 urteko” denpora tartea aurreikusten dalako obraren fase biak gauzatzeko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

EH Bilduk egindako erantzun-eskeetan, Sarratu metroaren 2. linearako “zuzeneko konexinoa” eukiko dauen geltoki intermodala izan daiten dagozan barrikuntzei buruzko erantzuna eskatu da, Basauriko Udalaren osoko bilkurak mozino batean eskatu dauen moduan. Kasu horretan, Unai Rementeria Ahdun Nagusiak erantzun dauenez, ETS “egikaritze-proiektuan pausuak emoten ari da Sarratuk ahalik eta intermodalidade handiena izan daian”, baserritarrak eta Bizkaiko herritarrak kontuan hartuta.

UDALKUTXA FUNTSA

Beste alde batetik, Elkarrekin Bizkaia arduratuta agertu da lurraldeko udalerrriak “gitxiegi finantzauta dagozalako”. Hori dala eta, Udalkutxaren banaketea zelangoa izango dan aztertzeko udalakaz batera sortutako batzorde mistoak izango dauen jarrera aurreratzeko eskatu deutso Aldundiari.

Elixabete Etxanobe Landajuela Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako diputatuak Aldundia “ez dala proposamen jakin batetik abiatzen” esan dau. Udalerrriakaz eta, ostean, Bizkaiko Batzar Nagusiakaz “ahalik eta akordio handiena” lortzeko azterlana egitea espero dau, Toki Ogasunei buruzko egungo Foru Araua ordeztuko dauen esparru juridiko barria izateko. Talde moreak bere ekarpenak egin ahal izateko espazio bat edegitea eskatu dau. Besteak beste, funtsa “hobeto hornituta” egotea proponidu dau Eneritz de Madariaga talde horretako bozeroaleak. Aldundiak “ez dauka funts horrek zelangoa izan behar dauen jakiteko abiapunturik”, erantzun deutso Etxanobek.

HONDAKIN-URAK

EH Bilduk barriro ekarri dau osoko bilkurara Arrankudiaga-Zollo eta Arakaldo udalerriek euren hondakin-urak behar dan moduan ez tratetearen gaia, eta horren inguruko azalpenak eskatu deutzaz Aldundiari. Amaia Antxustegi Ziarda Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko foru diputatuak aurreratu dauenez, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak azterlan “zehatza” egin dau. Azterlan horrek Arrakundiaga-Zollorako ebazpen bat eta hiru jarduketa bateratzen ditu: hodi biltzaile orokor bat Gastaka-Bekoatik Bakiolaraino, Nerbioi ibaiaren ondoan dagozan nukleoetako urak hartzeko; hegoaldeko auzoetako urak aurrerantzean eregiko dan araztegi bideratzeko beste kolektore bat; eta hirugarren neurria araztegi trinkoen instalazinoa izango da, kanalizazino horreek heltzen ez diran lekuetarako. Soluzino horrek “21 milioi eurotik gorako” kostua dau, eta Arakaldok be Partzuergoan sartzea eskatzea erabagiko baleu kopuru hori “aprobetxau ahal izango litzateke”. Erakunde horrekin bat egiteko deia egin deutse bi udalerriei, eta hori ez jako gustau EH Bilduko Zigor Isuskizari, “txantaje” moduan ikusi dauelako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN ANUNCIA EN EL PLENO DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA AYUDAS DE 2 MILLONES DE EUROS PARA INCENTIVAR LA ACTIVIDAD ECONÓMICA

- La diputada de Promoción Económica, Ainara Basurko, anuncia carencias de un año para pagar préstamos de Elkargi y de Seed Capital, nuevos bonos comercio y un proyecto para intentar captar cadenas de suministro al territorio.

(Gernika, a 27 de abril de 2022). La Diputación foral de Bizkaia ha anunciado hoy en el pleno de control celebrado en la Casa de Juntas de Gernika nuevas medidas económicas que saldrán de los remanentes de tesorería del año pasado. El departamento de Promoción Económica destinará “2 millones de euros” a poner en marcha cuatro iniciativas: una campaña de bonos para el comercio (1 millón), un nuevo programa para analizar la repatriación al territorio de las cadenas de suministro y producción (800.000 euros), un nuevo convenio de colaboración con Elkargi para cubrir los gastos de ampliación del periodo de carencia de préstamos a empresas y la ampliación del plazo de carencia de los microcréditos Bizkaia Aurrera de Seed Capital Bizkaia.

Las nuevas medidas se han anunciado en una interpelación del Grupo Mixto-PP Bizkaia que solicitaba medidas para paliar el efecto “letal” que está suponiendo para la economía de Bizkaia la crisis generada por la Covid-19, la guerra de Ucrania y la inflación. Su juntera Esther Martínez ha denunciado que el Gobierno foral “no atiende las alertas” sobre la economía de Bizkaia con unos indicadores a la baja en cuanto a PIB, llegada de empresas al territorio, pérdida de población y una merma del empleo industrial, datos que vienen deteriorándose desde hace tiempo, lo que refleja, según ella, que los problemas económicos “no son tanto coyunturales, como estructurales”. Para los populares es necesario activar “un espíritu reformista” con medidas para revertir la desactivación económica de Bizkaia y “hacer crecer las oportunidades y ser polo no solo de atención de talento, sino de generadores de talento.”

“No hay una actitud apática. Estamos preocupadas y atareadas en crear las mejores condiciones para hacer frente a las consecuencias de una pandemia y una guerra”, ha respondido Ainara Basurko, quien ha explicado que las medidas implantadas por el Gobierno foral meses atrás se cimientan en dos principios: una análisis “realista” de la situación de las empresas y una “coordinación interinstitucional” para que las medidas sean “efectivas”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Basurko ha hecho un repaso de las medidas que han puesto en marcha en los últimos meses las distintas administraciones, entre ellas, los 270 millones anunciados el 12 de abril por la Diputación, extraídos de remanentes de tesorería, para ejecutar proyectos estratégicos (la extensión del Metro a Galdakao, el cubrimiento de la Avanzada en Leioa, la construcción de vías verdes, residencias forales o pisos de acogida para evitar la exclusión social). Asimismo ha puesto en valor el trabajo de su departamento que dedica “el 80%” del presupuesto a servir de palanca de proyectos “estratégicos” para el tejido empresarial, no sólo en el corto plazo, sino también “mirando en el largo plazo”.

En una pregunta oral, el grupo Mixto-PP Bizkaia ha pedido posteriormente a la Diputación una bajada de impuestos para hacer frente a esos problemas “estructurales”, algo que ha negado el propio Diputado General. Unai Rementeria ha remarcado que hay que ser “prudentes, más aún en una situación de incertidumbre económica que es coyuntural”, según él. Los datos del primer trimestre no dicen que el territorio se encuentre en el escenario de crisis estructural que dibuja el PP: un crecimiento del PIB superior al 5% o la bajada del paro por debajo de los dos dígitos. Rementeria ha dicho que “se puede herrar si se actúa con prisas” y ha criticado a Esther Martínez que su grupo plantee una bajada de impuestos, mientras se pide al mismo tiempo incrementar el gasto en inversión pública. Además, ha pedido que aclare si se plantea aquí lo mismo que pide su líder Alberto Núñez Feijóo, entre lo que no se encuentra “deflactar la tarifa del IRPF”, como había insinuado Martínez.

EMPLEO DE CALIDAD

En otro asunto del orden del día del pleno, celebrado con las junteras y junteros en sus asientos, Israel Escalante Mesón, de Elkarrekin Bizkaia, ha interpelado a la diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Elixabete Etxanobe Landajuela, sobre cómo la Diputación controla el cumplimiento de las cláusulas sociales y medioambientales en cumplimiento de un Reglamento que se aprobó en 2017. El juntero de la formación morada ha puesto el foco en la “generalización de la subcontratación” en el sector público, que no casa con uno de los ejes “prioritarios” de la Diputación, como es la creación de un empleo de calidad, según Escalante.

La responsable foral ha indicado que el “principal” mecanismo de control es el pliego de cláusulas administrativas de los contratos, de obligado cumplimiento para las partes, en donde se establecen las condiciones y derechos laborales del personal, además de cuestiones de igualdad, discapacidad, cumplimiento de convenios o la obligación de subrogación del personal si fuera necesario. Y ha advertido que la Diputación establece



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

un “doble” control a través del departamento foral promotor del contrato y del Servicio de Contratación del Ejecutivo foral.

En cuanto a cumplir con unas condiciones de empleo dignas, la Diputación “cumple” con este compromiso a través de dos herramientas que están a su alcance: el empleo público y la contratación pública. En lo que se lleva de Legislatura, la Diputación ha aplicado “4.332 cláusulas sociales en 355 contratos”, lo que arroja una media “de 12 cláusulas por contrato”. Solo en 2021, el Gobierno foral firmó 11 Acuerdos Marco.

TIPO EFECTIVO EN SOCIEDADES

En otra Interpelación, la juntera de EH Bildu Arantza Urkaregi ha interpelado al Ejecutivo foral por cómo se va a establecer y garantizar un tipo efectivo mínimo en el Impuesto de Sociedades tras el acuerdo alcanzado en la Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económicos (OCDE) que logró en octubre el compromiso de 136 países de imponer a partir de 2023 un tipo mínimo del 15 % en el Impuesto de Sociedades a las empresas que facturen más de 750 millones de euros. Urkaregi ha puesto el ejemplo de Amazon que facturó el año pasado 51.300 millones de euros en Europa y no pagó ni un solo euro en impuestos.

El tipo mínimo en Bizkaia es más alto (el 17%) pero éste “no se cumple”, según Urkaregi. De las “casi 35.000 declaraciones” presentadas en el Impuesto sobre Sociedades en el ejercicio 2019, el tipo efectivo de 4.254 declaraciones se situó por debajo del 15%. En este dato “hay más razones que las deducciones”, según Urkaregi, quien ha pedido “un tipo mínimo en función de los ingresos” de las empresas y no de la cuota líquida imputable.

El diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha valorado como “muy positivo” el acuerdo alcanzado en la OCDE, que es “político y no es jurídicamente vinculante”. El responsable de la Hacienda de Bizkaia cree que deben adaptarse de forma “coordinada” en el marco de la UE “para evitar disimetrías”, si bien “no estamos en el momento de hacer un planteamiento normativo”, debido a que “no hay concreción suficiente”, algo que se preveía para este año. La propuesta final debería ser aprobada antes por unanimidad por todos los países miembros de la Comisión. En cuanto a las deducciones, Iruarrizaga ha señalado que tras la revisión fiscal de 2013, se han quedado sólo las inversiones “estratégicas” a medio plazo.

VARIANTE DE REKALDE Y ESTACIÓN INTERMODAL DE SARRATU



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Tras aprobarse el PGOU de Bilbao, EH Bildu ha preguntado por los pasos que va a dar la Diputación para iniciar la redacción del proyecto constructivo de la Variante de Rekalde. El diputado foral de Infraestructuras, Imanol Pradales, no ha adelantado nuevos hitos dentro del plan “posibilista” que ya comunicó en la Cámara vizcaína. Se avanzará “en lo que se pueda y en la medida que se pueda”, ha dicho. Por su parte, Raul Méndez ha pedido que pase a ser “prioritario” ya que, según el plan previsto, se contempla un periodo “de casi 8 años” para ejecutar las dos fases de la obra.

A preguntas también de EH Bildu, se ha solicitado también una respuesta sobre las novedades existentes para que Sarratu sea una estación intermodal “con conexión directa” a la línea 2 del Metro, como ha solicitado el pleno del Ayuntamiento de Basauri tras la aprobación de una moción. En este caso el Diputado General, Unai Rementeria, ha respondido que ETS está “dando pasos en el proyecto de ejecución con la intención de que Sarratu tenga la mayor intermodalidad posible”, teniendo en cuenta a los baserritarras y a la ciudadanía vizcaína.

FONDO UDALKUTXA

Por su parte, Elkarrekin Bizkaia ha mostrado su preocupación por la “infrafinanciación” de los municipios del territorio. Por ello, ha pedido a la Diputación que adelante la postura que mantendrá en la comisión mixta creada junto con los municipios para estudiar como será el reparto de Udalkutxa.

La diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Elixabete Etxanobe Landajueta, ha dicho que la Diputación “no parte de una propuesta concreta”. Espera la elaboración de un estudio para alcanzar “el máximo acuerdo posible” con los municipios y, posteriormente, en las Juntas Generales de Bizkaia, para elaborar un marco jurídico nuevo que sustituya a la actual Norma Foral de Haciendas Locales. El grupo morado ha pedido abrir un espacio para poder llevar a cabo sus aportaciones. Entre ellas, que ese fondo “esté mejor dotado”, ha planteado la portavoz de este grupo Eneritz de Madariaga. La Diputación “no tiene un punto de partida de cómo debe ser ese fondo”, le ha respondido Etxanobe.

AGUAS RESIDUALES

EH Bildu ha vuelto a traer al pleno el hecho de que los municipios de Arrankudiaga-Zollo y Arakaldo, no tratan correctamente sus aguas residuales, por lo que ha pedido explicaciones a la Diputación. La diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Amaia Antxustegi Ziarda, ha adelantado que el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia ha realizado un estudio “de detalle” que aúna una resolución con tres actuaciones para



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Arrakundiaga-Zollo: un interceptor general desde Gastaka-Bekoa hasta Bakiola para captar las aguas de núcleos que se encuentran junto al río Nervión; otro colector para dirigir las aguas de los barrios del sur a la futura depuradora; y una tercera medida con la instalación de depuradoras compactas para donde no lleguen las mencionadas canalizaciones. Una solución que tiene un coste de “más de 21 millones de euros” que “se podrían aprovechar” para el caso de que Arakaldo decidiera también solicitar el ingreso en el Consorcio. Ha animado a ambos municipios a adherirse a este ente, lo que ha disgustado a Zigor Isuskiza, de EH Bildu, que lo ha visto como “un chantaje”.